

Vahan Sarkisian armeniar hizkuntzalariaren oroitzapenez

Jaun-andreok, agur guztioi. Hasi baino lehen, aitortu behar dut, Vahan Sarkisian jauna pertsonalki ezagutu arren, tamalez, ez nintzela harekin maiz egon eta, horregatik, ez genuela elkarrekin luzaro mintzatzeko aukera handirik. Ordea, baziren gure artean berarekin harreman askoz estuagoak izandako euskaltzainak, adibidez, Henrike Knörr, eta, oso bereziki, Jose Mari Satrustegi jauna, bata eta bestea gure Akademiaren idazkariak izandakoak. Zoritzarrez, biak gure artetik joanak dira eta, neroni eskaini didate Sarkisian jaunaren hilberria emateko zeregina. Eta ohore hori, uste dut nolabaiteko hurbiltasun kontuagatik heldu zaidala. Ni ez naiz inoiz Armenian izan, baina horren auzo-herrian, ordea, bai: Georgian hain zuzen, bertan laurogeien hamarkadan urte erdi bat eman nuen eta. Halere, aipaturiko euskaltzainen faltan, nekez bete nezakeen nik gaurko egiteko hau, baldin Vahanen alabak, Arevik Sarkisianek, bere aitaren biografiaren datu, argibide eta jakingarri asko eman ez balizkit begikotasun handiz. Beraz, bidezkoa denez, aitor diezaiodan hemendik, neure esker ona.

Goraxego, Vahan Sarkisianen bizitzaz mintzatzea enetzat ohorea dela esan dut, eta hor ez dut inolako azaleko kortesiarik ezkutatu nahi. Gure herria, bistan denez, ez geografía ez demografía aldetik, ez da munduko herri handienetako bat. Halere, geure txikitasunean, bertoko seme-alabok ere badakigu bihotzetik eskerrak ematen. Eta are gehiago, Armeniatik, Europa-Asia arteko muga urrunetik, gutaz, gure hizkuntzaz eta kulturaz, luzaro hain interes eta ardura handia erakutsi duen hizkuntzalari bati gure azken agurra egiterakoan.

Vahán (izena) **Gerasím** (patronimikoa) **Sarkisián** (deitura) jauna Filologi Zientzietan Doktorea zen, Unibertsitateko irakasle katedraduna, armenologoa, idazlea, itzultzailea, euskalaria eta hispanista ere bai. Merezimendu horiek guztiak izanda, ez da harrigarria, goroxeago ikusiko dugunez, kultur elkarte ospetsu askotako kidea ere izendatzea.

Izatez, Erevan-en jaioa zen, Armeniako Errepublikaren hiriburuan, 1954ko martxoaren 12an. Lehen ikasketak bere jaioterrian egin eta 1978an graduazioa Erevango Estatu-Unibertsitateko Filologia Fakultatean burutu zuen, Filologia Erromanikoan, Frantses Hizkuntza eta Literatura berezitasunean. Unibertsitate berean 2003an bere doktorego tesia aurkeztu zuen, “Armeniar-euskal hizkuntzalaritza-korrelazioen problema” izenekoa. Urte berean unibertsitate hartako Filologia Erromanikoaren Katedraren Buru hautatu zuten.

1982an Soná Sarkisian andrearekin ezkondu zen, eta bi haur, Arevik, alaba, eta Nerses, semea, izan zituzten. Hizkuntza ugaritan zekien mintzatzeko, idazteko eta irakurtzeko: armenieraz, errusieraz, frantsesez, italieraz, euskaraz, espainolez, ingelesez, portugaleraz... Horiez gainera, antzinako armeniera (*grabar*) eta latina ere sakonki ikasiak zituen.

Curriculum-az kanpoko zaletasunei dagokienez, Vahan Sarkisian xake jokoa, poesia, gizarte zientziak eta politika-ikasketak ere gogoko zituen. Euskal Herria bere bigarren sorterritzat zeukan.

Gogorapen bereziak gordetzen zituen, adibidez, Isabako herriaz. Euskal Herriarengana sentitzen zuen atxikimendu, zaletasun eta oniritzi nabari hori, gainera, bere etxeko guztiengan jakin zuen txertatzen.

Unibertsitateko ikasturteen ondoren Vahanek lanean jardun zuen, bai Armenian eta bai atzerrian ere: 1979an Moskun, 1984 eta 1987 artean Kuban, adibidez. Itzultzaile, laguntzaile eta espezialista lanez gainera, garrantzi publikoko ardurak ukan zituen, batez ere gazteriari eta zientziari buruzko erakunde eta antolakuntzetan, batzuk Estatuarenak eta sozialak, eta beste batzuk gobernutik kanpokoak.

Armeniar eta euskal zibilizazioen arteko korrelazioez eginiko lehen argitalpena “*Armeniar-euskal problematika euskalaritzaren iturrietan*” deritzona izan zen, 1989an *Garín* aldizkarian argitaratua. Geroxeago, 1992. urtetik aurrera *Fontes Linguae Vasconum* aldizkarian idazten hasi zen.

Erevango Estatu-Unibertsitatean *Araxes* izeneko nazioarteko aldizkari armeniar-euskalduna fundatu zuen 1993an, bertako idazkaritza-kontseiluan Jose Mari Satrustegi eta Jose Antonio Arana-Martija zirela.

1994. urtetik aurrera, erakunde eta Estatuaren erakunde zientifiko, publiko, eta Espainia-Frantzietako zientzia eta kulturarako fundazio prestigiotsu batzuen laguntzaz, Vahan Sarkisianek ikerketa, estudio eta itzulpen batzuk bultzatu zituen, armenologia eta euskalaritzari buruzko zientzi gaiak landu, interes bereziko azterketa zabalak egin eta askotariko estudioetan jardun zuen: euskal hizkuntza eta literatura, armeniera eta euskararen arteko paralelismoak eta konparaketak, literaturaren eta historiografiaren idazlan nagusien itzulpenak, etimologiak (kanpo-erkaketak eta barne-eraikuntzak) Urartu armeniar erresuma zaharraren ikerkuntzarako oinarritzko problemak (armenieraren, euskararen eta Urartuko hizkuntzaren arteko erkaketak, esaterako...)

Vahan Sarkisian, halaber, teoria eta metodología zientifikoaren berezilari gisa ere nabarmendu zen, eta metodo zientifiko oso interesgarri eta eragileak prestatu zituen; alde horretatik, bai hizkuntzalaritzan, bai armenologian eta bai euskalaritzan ere ibilbide erabat berriak proposatu zituen, zenbait jakintsuren aldetik onspena lortu eta oihartzun handia eskuratu dutenak. Haren iritzi batzuek, ordea, armenieraren ustezko jatorri indoeuroparra zalantzan jartzen dutenek, adibidez, ez dute onspen berbera izan.

1993 eta 1999 artean Vahan Sarkisianek barne eraikuntzaren bidezko etimologiak aurkitzeko metodo berri bat landu eta garatu zuen, hizkuntza batzuen datu multzo batean oinarriturik: Metodo horren aplikazioaren eta egiaztapenaren lehen faseko ondorioak *Errusieraren Hiztegi etimologikoa, barne-eraikuntzan oinarritua* deritzonaren bi liburukietan aztertu eta laburbildu zituen, errusieraz 1998an argitaratuak. Geroxeago, 2008an, *Lincom Europa* izeneko Europar Elkarte Linguistiko nagusiaren eskariari erantzunez, V. Sarkisian jaunak *Euskal etimologiarako sarrera: Barne eraikuntza* deritzon monografia eman zuen argitara (München, Lincom, 2009).

Vahan Sarkisianen interesen eta gai azterketen emaitza hirurogeita hamar artikuluko zientifiko, monografia, itzulpen eta elkarrizketa baino gehiagotan ikertu, azaldu eta xeheki eskaini dira, Errusia, Frantzia, Espainia eta Argentinako aldizkari, material-bilduma, eta entziklopedietan argitaratuak.

Aipaturiko argitalpen horien artean azpimarragarrienak ondoko hauek dira:

- *Euskal gramatika laburra*, Erevan, 2000 (armenieraz),

- *Urartuko zibilizazioa eta Euskaldunen Lehen Sorterri Historikoaren problema*, Erevan, 1998 (armenieraz),
- *Vascos y Armenios: Documentos y materiales*, T. I eta II, Erevan - Donostia, 2006 – 2007. (espainieraz), etab.

Hizkuntzalaritzan eta Filologian Vahan Sarkisianek eginiko emaitza handiak ez dira soilik akademi arloan, hitzaldietan, ikastaro berezietan etab. islatzen, baizik eta atzerriko zientzia elkarte ugariarekin izandako harremanetan eta partaidetasun zabalean ere.

Horretara, Vahan Sarkisian gure Akademiak Ohorezko Euskaltzain izendatu zuen 2002ko azaroaren 29an . Era berean Hispanisten Nazioarteko Elkartearen eta Euskalarien Nazioarteko Elkartearen Ohorezko kidea ere bazen.

Era berean, Vahan Sarkisian nazioarteko hitzaldi, kongresu eta foroetako partaide, idazkari eta koordinatzaile izana zen:

- Hispanisten Nazioarteko Batzarra (Espainia, Granada, 1998)
- Hispanisten Nazioarteko Konferentzia (Mosku, 1999)
- Hispanisten Nazioarteko Batzarra (Estatu Batuak, New York, 2001)
- Euskalarien Nazioarteko Batzarra (Euskal Herria, Donostia 2002)
- Armenologoen Nazioarteko Konferentzia (Frantzia, Ai-en-Provence, 2003)
- Armenologoen Nazioarteko Batzarra, Idazkari zientifikoa (Erevan, 2004)
- “Teatroa eta Hizkuntza” Nazioarteko Konferentzia (Iran, Teheran, 2007)

Vahan Sarkisianen ahalegin eta talentuari zor zaio, besteak beste, Armeniako errealitaterako hain balio handia izan duten itzulpen segida handia, espainiar, frantses eta euskal literatura, hizkuntzalaritza eta historiografiako egiazko maisu-lan direnak:

Bernard Etxepare, *Linguae Vasconum Primitiae*.

Francisco Quevedo y Villegas, *La vida de Buscón, Sueños*.

Miguel de Cervantes, *Novelas Ejemplares, Vida del Ingenioso Hidalgo Don Quijote de la Mancha*.

Joseph Agustín Chaho, *Tradiciones populares vascas, La Leyenda de Aitor*.

José María Satrustegui, *Morfología del tiempo*.

Poetas navarros actuales, etc.

Vahan Sarkisianen ekimeneko itzulpenekin batera eta unibertsitateko irakasle eta ikasleen partaidetasunaz elkarraldiak, mintegiak, eztabaidak eta analisiak egin dira atzerriko espezialistekin.

Haren eraginari esker prestatu eta argitaratu da ‘Armenieraren hiztegi etimologikoa’, G. Jahukian armeniar hizkuntzalari eta akademikoaren lana, armeniar linguistikarako balio nabarmena daukana.

Vahan Sarkisian dugu, halaber, armeniera-espainiera hiztegi mardularen lehen autorea, 40.000 sarreraz eta 20.000 perpaus eta esaeraz hornituarena. Aitzindaria gertatu zen, armeniar gizartean euskal hizkuntza eta kulturarekiko kezka agertzen, euskal-armeniar paralelismoak eta euskara-armeniera hiztegiak aurkeztean.

Vahan Sarkisianek irakaskuntzan, pedagogian eta zientzian zerabilen misioari erakutsiriko atxikimendua bereziki balioetsi dute haren ikaskide, ikasle eta zientzilariek, bai Armenian eta bai atzerrian ere.

Haren heriotza iaz, 2011ko urtarrilaren 21ean gertatu zen bat-batean, bihotzekoak jota, 57 urte betetzeko, bi hilabete falta zituenean, etxeko, senide eta adiskide guztiengan dolu-samintasuna utzirik. Hil baino egun batzuk lehenago, Euskaltzaindiko Exonomastika-batzordearen izenean idatzi nion, armenierazko geografia izenen transkripzioarako argitasun batzuk eskatzeko, horren arabera bertako izen geografikoak transkribatzeko. Gogoan dut Vahan Sarkisian jaunak berehala eta egokiro erantzun zigula, bai eta gure zalantzak argitu ere. Eskertzekoa izan genuen..

Bego, hortaz, haren oroitzapena, Euskal Herriarengana beti erakutsi zuen ardura eta interesarekin batera, euskaldunon gogo-bihotzetan.

Xabier Kintana Urtiaga

Haren paregabeko nortasunaren beste ezaugarri sotilago batzuk iragartzeko, adibide gisa, hona hemen hark espainieraz idatziriko poema hauek

Sanfermines

Parece que todo el temperamento del planeta
se ha acumulado en Pamplona.
Por el camino rojo
corren todos,
toros y hombres,
hombres y toros,
hermanos inseparables, como Abel y Caín.
Y corren hasta las puertas de la muerte.
Allí el toro entra y el hombre para.
Claro, no es el guardián de su hermano.

Santimamiñe

Eres un hueco en el tiempo y el espacio,
un hueco cavado por la eternidad,
mucho antes de la creación del tiempo.
Por eso, nadie sabe los nombres
de tus pintores y tus arquitectos.
Te adoran todos, las fortalezas celtas,
La acrópolis y los templos sumerios.
Todos temen al tiempo
y el tiempo teme de las pirámides.
Pero las pirámides temen de ti,
de su bisabuelo.

Al gentil vasco

Eras un ser mitológico

y tenías siete efes, eras

feo,

feroz,

firme

fuerte,

famoso,

fantástico.

Pero, antes que nada,

Eras un gran

filósofo,

porque tratando con hombres,

conocías el valor de callar.

Urumea

Nadie sabe lo que estás haciendo,

A veces bajas en el mar,

a veces subes a las montañas.

Pero siempre corres,

subes y bajas sin cesar.

Parece que no eres río

sino una sangre inquieta

que circula en las venas el país.

Esopo era loco:

nadie puede beber un río,

tampoco la sangre de un país.

Vahan Sarkisian

Euskalaritzari buruzko bibliografia

(1989-2007)

1. V. Sarkisian, “Armeniar-euskal problematika euskalaritzaren iturrietan”. *Garun* aldizkaria, 3. zenb., 1989 (armenieraz).
2. V. Sarkisian, “El elemento armenio del origen vasco”. *Historia*, Buenos Aires, Argentina, 8. zenb., 1990 (espainieraz).
3. V. Sarkisian, “Euskaldunak Ararat mendiaren isurialdeetan”. *Garun*, 2. zenb., 1990 (armenieraz).
4. V. Sarkisian, “Lehenbiziko errotaren euskal tradizioaren armeniar aldakia”. *Araxes* aldizkaria, 1. zenb., 1993 (armenieraz eta espainieraz).
5. V. Sarkisian, “Edward Spencer Dodgson-en armeniar euskal zerrenda”. *Araxes* 1. zenb., 1993, (armenieraz).
6. Jose Miguel de Barandiaran, “Euskal Herriko hilarriak”. V. Sarkisianen itzulpen laburtua, *Araxes*, 1. zenb., 1993 (armenieraz).
7. V. Sarkisian, “Algunos aspectos mitológicos de la teoría vasco-armenia”. *Fontes Linguae Vasconum*, 1992 (espainieraz).
8. V. Sarkisian, “Antonio Tovar-en oinordekotza euskalaritzan”. *Araxes*, 1. zenb., 1994 (armenieraz).
9. V. Sarkisian, “Euskaldunen izenaren lehenbiziko aipamena armeniar historiografian”. *Araxes*, 1. zenb., 1994 (armenieraz).
10. Isaac Lopez Mendizabal, “Euskal Herriaren historia laburra (atalak)”. Itzulpena, sarrera eta oharra: V. Sarkisian. *Araxes*, 1. zenb., 1994, (armenieraz).
11. Angel de Gorostidi, “Armeniar apezpiku bat Gipuzkoan XV. Mendean”. Itzulpena eta oharra: V. Sarkisian. *Araxes*, 1. zenb., 1994, (armenieraz).
12. Jose Maria Satrustegi, “Denboraren morfologia”. V. Sarkisianen itzulpena. *Araxes*, 2. zenb., 1994 (armenieraz).
13. V. Sarkisian, Armeniar-euskal ahaidetasuna toponimiako datuen argitan. *Araxes*, 2. zenb., 1994 (armenieraz).
14. V. Sarkisian, Euskaldunen izen etnikoak. *Araxes*, 1. zenb. 1995 (armenieraz).
15. V. Sarkisian, “Bedros Polsetziren euskal-armeniar ekuazioak” *Araxes*, 2. zenb., zenb. , 1995 (armenieraz).
16. V. Sarkisian, “Hrachia Adjarian-en oinordekotza euskalaritzan”. *Araxes*, 1. zenb., 1996 (armenieraz).
17. V. Sarkisian, “Van-go idazkien *-tu (-du)* atzizkiaren isla”. *Araxes*, 1. zenb., 1996 (armenieraz).
18. V. Sarkisian, “Joseph Karst-en euskal-armeniar ekuazio lexikalak”. *Araxes*, 1. zenb., 1996, (armenieraz).
19. V. Sarkisian, “Introducción a la problemática armenio-vasca”. *Araxes*, 2. zenb., 1996 (armenieraz).
20. Jose María Satrustegi, *Euskal Herri-tradizioak*. V. Sarkisianen itzulpena. J.M. Satrustegiren hitzaurrea. 132 orr. (armenieraz)
21. V. Sarkisian, “*Mushegh* armeniar antroponimoari buruz (euskal-armeniar azterketa)” Erevango *Estatu-Unibertsitatearen Urtekariak*, 3. zenb., 1996 (armenieraz).

22. V. Sarkisian, “*Artzax* armeniar toponimoa: armeniar-euskal azterketa”. *Erevango Estatu-Unibertsitatearen Urtekariak*, 2 zenb., 1996 (armenieraz).
23. V. Sarkisian, “Joseph Karst armenologo handiaren euskal-armeniar oinordekotza”. *Erevango Estatu-Unibertsitatearen Aldizkaria*, núm. 3, 1996 (armenieraz).
24. V. Sarkisian, “Los numerales y algunas ideas numéricas en el vascuence (etimología interna sistematizada)”. *Fontes Linguae Vasconum*, 1997 (espainieraz).
25. V. Sarkisian, “La etimología de vasc. *bukatu* ‘terminar’”. *Fontes Linguae Vasconum*, 1997, (espainieraz).
26. V. Sarkisian, “Espainieraren latin aurreko sustratua eta armeniera”. *Araxes*, 2 zenb., 1997 (armenieraz).
27. Angel Urrutia, “Poesiak”. V. Sarkisianen itzulpena eta hitzaurrea. *Araxes*, 2 zenb., 1997 (armenieraz).
28. V. Sarkisian, “Noticiero vascológico de Armenia”. *Fontes Linguae Vasconum*, 1997, (espainieraz).
29. V. Sarkisian, “Nikolas Marr-en armeniar-euskal erkaketak”. *Araxes*, 2 zenb., 1997 (armenieraz).
30. V. Sarkisian, *Urartuko zibilizazioa eta euskaldunen aitzinako sorlekuaren problema* (monografia). Erevan, 1998, 165 orr., (armenieraz).
31. V. Sarkisian, “Euskal atsotitzen bilduma: edizio elebiduna”. *Araxes*, 1. zenb., 1998 (euskaraz eta armenieraz).
32. V. Sarkisian, “Euskal-armeniar paralelismoen hiztegia”. *Araxes*, 2 zenb., 1998 (euskaraz eta armenieraz).
33. V. Sarkisian, “Estudios toponímicos vascos”. *Fontes Linguae Vasconum* aldizkaria, 1998, (espainieraz).
34. V. Sarkisian, *Errusiar hiztegi etimologikoa (euskal lege fonetikoaren oinarrian)*. T. 1, 2. lib. Erevan, 1998 (errusieraz).
35. V. Sarkisian, *Djavaxkh toponimoaren jatorriaz*, Erevan, 1999, (armenieraz).
36. V. Sarkisian, *Armeniar idazkeraren jatorriak (euskal-armeniar lexiko erkaketa askorekin)*. Erevan, 1999, 335 orr. (armenieraz).
37. José Maria Satrustegi, *Heriotzaren aurpegi ezkutua*. V. Sarkisianen itzulpena eta hitzaurrea, Erevan, 1999, 62 orr. (armenieraz).
38. V. Sarkisian, “Arm. *enkoiz* - eusk. *intxaur* hitzen genealogi zuhaitza”. *Rubikon* aldizkaria, 1 zenb., 1999 (armenieraz).
39. V. Sarkisian, “La Ideología heterodoxa de Joseph Karst”, *Fontes Linguae Vasconum*, 1999 (espainieraz).
40. V. Sarkisian, “Elementos vascos en la obra de Hrachia Adjarian”. *Fontes Linguae Vasconum*, 1999, (espainieraz).
41. V. Sarkisian, “Euskaldunak eta armeniarak. Europako zibilizazioaren orri ezkutua”. *Armiansky Vestnik* aldizkaria, 1-2. zenb., Mosku, 2000 (errusieraz).
42. V. Sarkisian, *Euskaldunen jatorriaren enigma eta Armeniako Goilautada* (monografia). Erevan, 2000, 163 orr. (armenieraz).
43. *Nafarroako gaurregungo poetak*. Vahan Sarkisianen itzulpena, Erevan, 2000, 151 orr. (armenieraz).
44. V. Sarkisian, “. Erevan, 2000, 256. orr. (armenieraz).
45. V. Sarkisian, “Contribución a los estudios aquitano-vascos”. *Fontes Linguae Vasconum*, 2000 (espainieraz).
46. V. Sarkisian, “(eusk. *buru* - arm. *pojr/pur* “buru”) euskal-armeniar paralelismo baten inguruan”. *Araxes*, zenb., 2000 (armenieraz).

47. Gabriel Aresti, “Olerkiak”. V. Sarkisianek euskaratik armenierara eginiko itzulpena, *Araxes*, 11 zenb., 2000 (armenieraz).
48. V. Sarkisian, “Problemas de traducción al armenio de la literatura vasca” (XV Congreso Internacional de Estudios Vascos-era aurkezturiko txostena, Donostia 2001eko hazilaren 28-30etan).
49. V. Sarkisian, “Edward Spencer Dodgson y la problemática vasco-armenia”. *Fontes Linguae Vasconum*, 2001, (espainieraz).
50. V. Sarkisian, *Euskera-armeniera hiztegia*. Erevan, 2001, 331 orr.
51. V. Sarkisian, “El ergativismo del euskera: intento de una reconstrucción interna”, *Fontes Linguae Vasconum*, 1998 (espainieraz).
52. Bernard Etxepare, *Linguae Vasconum Primitiae*. Vahan Sarkisianen itzulpena eta sarrera, Erevan, 2001, 91 orr. (edizio elebiduna).
53. V. Sarkisian, “Les Basques et les Arméniens: le défi d’une théorie oubliée”. Revista *France-Arménie*, 23 zenb., 2002 (frantsesez).
54. V. Sarkisian, “La etimología de vasc. *ezker* ‘izquierdo’”. *Fontes Linguae Vasconum*, 2002 (espainieraz).
55. V. Sarkisian, *A. Madoyan, Itinerarios (los peregrinos armenios en Europa Occidental)*, Erevan, 2001, 50 orr. (armenieraz eta espainieraz).
56. Juan Antonio Mogel, *Peru Abarka*. V. Sarkisianen itzulpena, Erevan, 2002, 114 orr. (armenieraz).
57. V. Sarkisian, “La formación del infinitivo en el euskera”. *Fontes Linguae Vasconum*, 2003 (espainieraz).
58. V. Sarkisian, *Les Basques et les Arméniens: l’héritage ethno-linguistique des Arméniens en Europe Occidentale*. Collección “Armeniaca”, Aix-en Provence, 2004 (frantsesez).
59. V. Sarkisian, *Euskal Herriko armeniar etnotoponimoak. Armeniako Goilautada eta munduko zibilizazioko problemak*, Bilduma, Erevan, 2004 (armenieraz).
60. V. Sarkisian, Urartuko euskal toponimiako elementuak “Armeniar kultura: iragana eta oraina” *Nazioarteko Kongresurako Materialak*, Erevan, 2005 (armenieraz).
61. V. Sarkisian, “Золото басков” (= Zoloto baskov ‘Euskaldunen urrea’). *Erevan* ald. 4. zenb., 2006 (errusieraz).
62. V. Sarkisian, *Vascos y Armenios: Documentos y materiales*, t. I. Erevan-Donostia, 2006, 260 orr. (espainieraz).
63. Gabriel Aresti, *Harri eta Herri, traducción del euskera e introducción de V. Sarkisian*, Erevan, 2006, 175 orr. (edizio elebiduna – edición bilingüe).
64. V. Sarkisian, *Vascos y Armenios: Documentos y materiales*, t. II, Erevan-Donostia, 2007, 254 orr., (espainieraz).
65. Joseph Augustin Chaho, *La legende de Aitor* (frantsesetik itzulia, sarrera eta oharra V. Sarkisian-enak), Erevan, 2007, 80 orr.